

Lehen Hezkuntzako haurren lagunarteko hizkera aisialdian: erdaren¹ eragina bat-bateko adierazkortasunean

**Lenguaje informal del alumnado de Educación
Primaria en su tiempo de ocio: influencia del español
y del francés en su expresividad espontánea**

**Le langage informel des élèves de l'enseignement
primaire pendant les loisirs : l'influence de l'espagnol
et du français sur l'expressivité spontanée**

**Informal speech in primary school children in their
leisure time: the influence of Spanish or French on
their spontaneous expressivity**

BEREZIARTUA ARRUABARRENA, Aritz
Ikastolen Elkarteko Gorputz Hezkuntza arloko arduraduna
eta material didaktikoaren sortzailea.
abereziartua@ehi.ikastola.eus

GUIRADO IRASUEGI, Odei
Pedagogoa eta Zirimola Ikastolen Aisialdi Taldeko arduraduna
eta ikertzailea. Ikastolen Elkartea
oguirado@ehi.ikastola.eus

ALONSO AMEZUA, Idurre
Euskal Ikasketetan doktorea eta Mondragon Unibertsitateko irakasle-ikertzailea
ialonso@mondragon.edu

DOI:

Noiz jaso: 2023-09-27

Noiz onartua: 2023-11-16

¹ Lan honetan, erdara diogunean, gaztelania zein frantsesa esan nahi dugu.

Ikerketa hau Euskaltzaindiaren Mintzola Egitasmoak, Ikastolen Elkarateak eta Mondragon Unibertsitateak gauzatu dute. Hain zuzen ere, eremu formalean lagunarteko hizkera lantzeak ea ikasleengan euskarazko hizkera informala areagotzeko eragin positiborik izan ote dezakeen dugu ikergai hiru erakundeok. Hemen aurkeztu dena, ikerketaren abiapuntua da. Euskal Herriko lurralde desberdinetako hamar ikastola hautatu dira, eta Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek etxean, kalean nahiz ikastolan dituzten hizkuntza-ohiturak aztertu dira lehenbizi galdetegi bidez, laginaren izaera ahalik eta xeheen ezagutzeko asmoz. Horren ostean, behaketak egin dira ikastoletako aisia-esparruetan, lagina osatzen duten haurrok lagunartean daudenean zein hizkuntzatan hitz egiten duten zehaztu ahal izateko.

Gako-hitzak: Lehen Hezkuntza, aisialdia, lagunarteko hizkera, hizkuntza-ohiturak.

Esta investigación ha sido realizada por el Proyecto Mintzola, de Euskaltzaindia (Real Academia de la Lengua Vasca), la asociación Ikastolen Elkaratea y Mondragon Unibertsitatea. De hecho, es objeto de investigación por parte de las tres instituciones analizar si el empleo del habla coloquial en ámbitos formales puede ejercer una influencia positiva en el incremento del uso del euskera por parte del alumnado como lengua de comunicación en situaciones informales. A continuación, se presenta el punto de partida de dicho estudio. En primer lugar, se han seleccionado diez centros escolares (*ikastola*) de diversos territorios de Euskal Herria y se han analizado los hábitos lingüísticos del alumnado de cuarto curso de Educación Primaria en el ámbito familiar, con sus amigos o amigas y en la escuela.

Palabras clave: Educación Primaria, tiempo de ocio, lenguaje informal, hábitos lingüísticos.

La présente recherche a été financée par le Projet Mintzola d'Euskaltzaindia, l'association Ikastolen Elkaratea et Mondragon Unibertsitatea. Le but était d'étudier si, dans les trois institutions, le traitement du registre amical dans un domaine formel peut avoir un effet positif sur l'utilisation du langage informel en basque chez les élèves. Nous présentons ici le point de départ de la recherche. Nous avons tout d'abord sélectionné dix écoles (*ikastola*) de différents territoires du Pays Basque et, par le biais d'un questionnaire, nous avons analysé les habitudes langagières des élèves de CM1 à la maison, à l'extérieur et à l'ikastola dans le but d'appréhender de manière précise les caractéristiques de notre échantillon. Ensuite, nous avons procédé à des observations dans les cours de récréation de ces ikastolas pour pouvoir identifier dans quelle langue communiquent les enfants composant l'échantillon lorsqu'ils sont entre copains.

Mots clés : enseignement primaire, loisirs, langage informel, habitudes langagières.

This study was funded by the Mintzola Project of the Royal Academy of the Basque Language (Euskaltzaindia), by the Basque School Association (Ikastolen Elkartea) and by Mondragon Unibertsitatea. Our purpose was to examine whether speech among friends in a formal setting can have a positive effect on increasing informal speech in Basque among students. We present the first steps of this research here. Ten schools (ikastolas) from different territories in the Basque Country were selected, and the language habits of students in their fourth year of Primary Education at home, outside the home and at school were initially examined via a questionnaire in order to obtain baseline information about the sample in as much detail as possible. We then observed the participating children in the recreational areas of the schools in order to determine which language(s) they speak with their friends during their free time.

Keywords: Primary Education, leisure time, informal speech, language habits.

ALONSO AMEZUA, Idurre, BEREZIARTUA ARRUABARRENA, Aritz, GUIRADO IRASUEGI, Odei (2023). «Informal speech in primary school children in their leisure time: the influence of Spanish or French on their spontaneous expressivity», *Euskera ikerketa aldizkaria*, 68, 2: 11-39.

1. Sarrera

Aspaldiko kezka da, euskararen ezagutzak gora egin arren, euskararen erabilera ez dela maila berean areagotu; aitzitik, leku batzuetan atzera ere egin du. 2023an Soziolinguistika Klusterrak argitaratutako datuen arabera (Ramirez 2017), argi-itzalak daude lurraldeka, euskararen kale-erabilera-aren bilakaerari dagokionez: Bizkaian azken hamar urteetan behera egin du; Gipuzkoan azken bosturtekoan hasi da atzerakada; Araban, eta batez ere Nafarroan, gora egin du erabilerak azken bost urteetan; eta Ipar Euskal Herrian inoizko erabilera-indizerik baxuena jaso dute. Bestalde, hamar urteotan adin-talde guztietan atzerakada gertatu da, Ipar Euskal Herriko haurren kasuan izan ezik (horien artean, euskararen erabilera 2,5 puntu igo da).

Oraindik datu berrien korrelaziorik ez badugu ere, aurreko Inkesta Soziolinguistikoak egindako korrelazioen analisiaren arabera (Aizpurua 2018), hiru aldagaik erakusten dute Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), Nafarroan zein Ipar Euskal Herrian, erabilerarekiko korrelaziorik handiena: a) erabilera-eremuan dagoen euskararen ezagutza (etxean, lagunartean nahiz lankideen artean), b) gune soziolinguistikoa eta c) euskara erabiltzeko erraztasuna. Era berean, erraztasunaren eta lehen hizkuntzaren arteko korrelazioa oso handia da. Inkesta Soziolinguistikoak aztertzen duen unibertsoa Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleena da, eta aintzat hartzeko moduko datuak dira, euskararen erabileraren errealitatera hurbiltzeko. Izan ere, inkestaren emaitzek zenbait ondorio garrantzitsu azaleratu dituzte (Aizpurua 2018): lehenengo, euskaldun gehienek ez dutela harreman-sare nahikoa euskara normaltasunez erabiltzeko; bigarren, 25 urtetik beherako gazteen erdiek baino gehiagok etxetik kanpo ikasi dutela euskara; eta hirugarren, hiltun berri horietako askorentzat eskola edo eskolako lagunartea dela euskaraz aritzeko aukera bakarrenetakoa. Horrez gain, erdaraz (gaztelania eta frantsesa) hitz egiteko erraztasun handiagoa dutenen ehunekoek gora egiten jarraitzen dute (alegia, gehiago dira erdal elebidunak euskal elebidunak baino). Iurrebasok (2021) emandako datuen arabera, «gordin azaleratzen zaigu gaitasunean ere euskara izugarri ahul dagoela Euskal Herrian erdaren aldean [...] hiltunen % 7,4ri bakarrik zaie errazagoa euskaraz

hitz egitea erdaraz baino, eta, aldiz, erdaraz errazago moldatzen direnak % 84,6 dira».

Testuinguru horretan, haurretan ere ohiko bihurtu da gaztelaniaz zein frantsesez aritzea lagunartean, eta euskaraz dabilzaneen kasuan ere, erdal lexikoa, esamoldeak, sintaxia... erabiltzea. Hori horrela, artikuluko honek aztergai du Euskal Herri luze-zabaleko ikastoletan Lehen Hezkuntzako 4. mailako haurrek zein hizkuntzatan hitz egiten duten ikastolaren eremuko aisia-esparruan, eta lagunartean zein esamolde baliatzen dituzten euskaraz nahiz erdaraz.

Kode-alternantziak gertatzen diren kasuetan arrazoiak askotarikoak izan daitezke, dela funtzio zehatzak betetzeko, dela hizkuntza-gaitasun eza konpentsatzeko. Hala, garrantzitsua da jakitea zein testuingurutan erabiltzen dituzten euskarazko esamoldeak eta zeinetan erdarazkoak. Horri lotuta, haurrek lagunarteko esamoldeak noiz darabiltzaten aztertuko dugu, alegia, jolasean ari direnean ala bestelako solasaldietan erabiltzen ote dituzten jakin nahi dugu, egoera horiek baldintzatzen ote duten ala ez hizkuntza baterako edo besterako joera, eta hautu horietan solaskideen adinak eta sexuak eraginik ote duen.

2. Gazteen hizkera

Ikerketa honetan, ikastoletako haurren hizkera-komunitatea dugu aztergai: gizarte-talde horrek partekatzen duen hizkera-aldaera eta aldaera horren erabilera. Beste modu batera esanda, ikastoletako haurrek beren artean dituzten jarduera-komunikatiboak ditugu aztergai.

Hizkera-komunitatearen kontzeptuak aldea du hizkuntza-komunitatearekin. Izan ere, Chomskyren hizkuntza-komunitatearen kontzeptuak hizkuntza bereko hitzunen multzoari erreferentzia egiten dio:

Una comunidad de habla está formada por un conjunto de hablantes que comparten, efectivamente, al menos, una lengua, pero que, además, comparten un conjunto de normas y valores de naturaleza sociolingüística: comparten unas mismas actitudes lingüísticas, unas

mismas reglas de uso, un mismo criterio a la hora de valorar socialmente los hechos lingüísticos, unos mismos patrones lingüísticos». (Labov 1981, in Vasquez 2014: 60)

Gainera, Morenok (2005) aipatu zuen hizkuntza-komunitatea hizkuntza baten erabilerak ezaugarritzen duela, erabiltzen den une historikoa zehaztu gabe; aldiz, hizkera-komunitateak une historikoak partekatzen ditu. Caussek (2009) ere bide beretik definitu zuen hiztun-komunitatearen kontzeptua:

El grupo humano enmarcado en un espacio geográfico determinado que comparte, en lo fundamental, comunión de actitudes, sentimientos y tradiciones y unos usos y patrones lingüísticos comunes correspondientes a una lengua histórica o idioma; con las características propias que le permiten identificarse como tal. (Causse 2009: 17)

Ikerketa honetan, hizkera-komunitatearen ereduari jarraitu diogu (Martirena 2007), non aldagai sozial bat (adin eta espazio geografiko jakin bateko ikasleen testuinguru), hizkuntza-fenomeno batekin (lagunarteko elkarriketetan duten esamoldeen erabilera) lotu den.

Era berean, hizkera-komunitateaz dihardugu, eta ez sare sozialaz; izan ere, sare sozialaren kontzeptua hipotesi batetik abiatzen da, eta hor hiztunen arteko elkarrekintzak sare gisa aztertzen dira (Parodi eta Santa 1997). Aztergai ditugun hizkera-kideek, ordea, ez dute gainontzeko ikastoletako kideekin hizkuntzazko elkarrekintzarik. Aldiz, badute berbazko berezko erreperorio bat.

Hori horrela, hizkuntza-komunitateen barruan, hizkera-komunitateak sortu ohi dira, eta hizkuntzaren erabileran, Zalbidetik (2020: 44) dioen moduan, hizkuntza estandarrak bezain funtsezkoak dira eguneroko mintzamolde arruntak: «maiztasun handikoak, hiztun gehienei ‘berez’ ateratzen zaizkienak eta, horrexegatik, eguneroko mintzajardun arrunta zurkaizteko alboraezinak».

Hizkuntza-eredu bateratuak bezala, eguneroko mintzamolde arruntak ez du definizio bakar, orokor eta unibokorik (Zalbidetik 2020). Euskaltzaindiak hizkera *kolokial* izendatu ditu lagunarteko eta etxeko hizkera (Euskaltzaindia 2018). Legarrak (2019) formal ≠ informal bereizketaren alde egin du,

eta dio, hizkera informala edo lagunartekoa euskalkiekin lotu izan dela zuzenean, eta formala, berriz, euskara batuarekin, baina horrek ez duela horrela izan behar, ezinbestean. Halaxe jaso zuen Zuazok (in Legarra 2019):

Euskara denbora luzean inguru hurbileko hizkuntza izan da, eta inguru hurbil horretan euskalkia erabili izan da berriki arte. Testuinguru formaletan, berriz, salbuespenak salbuespen, historiako une askotan erdarara jo izan da. Horrek ez du esan nahi, ordea, euskalki formalik edo lagunarteko [euskara] baturik ez dagoenik. (Legarra 2019: 217)

Ildo horretatik, euskalkirik ez duten ikasleetan «lagunarteko euskara batu informala» indartzean eta zabaltzean egon liteke gakoa. Zalbidetik (2020) hurrengo ezaugarri hauek jaso ditu, besteak beste, eguneroko mintzamolde arruntaz jardutean: a) eguneroko mintzamolde arruntak hizkuntza estandarren ukitu-eraginik ere badu; b) hiztunon ahozko jarduna ez da normalean hizkuntza estandar hutsa, eta c) ez ditu hizkuntzaren formaltasun-, zuzentasun- eta gramatikaltasun-arauak osorik ageri. «William Labov eta beste zenbait aditu gogoan izanik, «erregistro informala» da eguneroko mintzamolde arrunta» (Zalbide 2020: 48). Horrez gain, erdararen inpaktu bizia du, Zalbideren ustez, euskaldunon eguneroko mintzamolde arruntak, bai eta aldakortasun geografiko ohargarria nahiz dibertsifikazio soziologiko nabarmena ere. Oro har, eguneroko mintzamolde arrunta gurasoetatik transmititu izan da seme-alabetara (Zalbide 2020), baina gorago aipatu bezala, errealitate soziolinguistikoa aldatzen ari da, eta 25 urtetik beherako gazteen erdiek baino gehiagok etxetik kanpo ikasi dute euskara.

Aizpuruak (2018: 44) azpimarratu duen moduan, «hainbat faktorearen artean, bi dira euskararen erabilera bereziki eragiten dutenak: harreman-sarea eta erraztasuna. Bi baldintza horiek ez dute euskararen erabilera ehuneko ehunean ziurtatzen, baina bi baldintza horiek gabe nekez erabiliko du euskaldun batek euskara». Edozelan ere, Iurrebasok (2021) dioen eran, Txepetxek «gaitasuna-erabilera-motibazioa» ardatzetatik abiatuta, euskararekiko jarrera eta motibazioa litzateke ardatzen artean mailarik gorenean geneukakeena, eta motibazioa gaitasuna baino handiagoa dela ondoriotatu du.

Bestalde, Iurrebasoren (2019) ustez, etxeko erabileraren eta kalekoaren arteko aldea handitu egin da inguru euskaldunenetan azken 25 urteotan. Lehen ez bezala, gaur egun gehiago egiten da euskara arnaguneetako² kaleetan, bertako etxeetan baino. Joera horren arrazoi ditu bi hipotesiok:

- Bata, arnaguneetara bizitzera kanpotik etorri diren hiztun erdaldunak, edo euskaraz jakinda ere erdararako joera handiagoa dutenak, ez direla hainbeste ibiltzen herriko kaleetan.
- Bestea, berriz, izan daiteke, arnaguneetako hiztunen azpimultzo batek euskararako joera handiagoa kalean izatea, etxean baino (etxeko denak euskaldunak ez direlako; edo etxeko hizkuntza-ohitura eta arauak erdarara bultzatzen dutelako, eta kalekoek, berriz, euskarara).

Hala bada, Zalbidetik (2020: 59) dioen bezala, euskara etxetik kanpo ikasi duten zenbaitek euskalduntze-bidean aurrera egin dute, elebidun orekatu bihurtuz. «Erdaldun elebidun guztiak ez dira, ordea, “osabetezko” euskaldun berri [...] Hitztun-irakurle-idazleok *interlanguage* edo erdal euskarazko «min-tza-arte» nahasiaz baliatzen dira, erdaraz ari ez direnean».

2.1. Hizkuntza-hautuak lagunartean

Gonzálezek (2008) azpimarratu du taldearen arau eta marka kulturalak hizkuntza baten bitartez transmititu edo nabarmentzen direla. Horri lotuta, gaur egun ez dago ia euskaldun elebakarrik, eta bi hizkuntza jakin eta erabiltzeak gure hitz egiteko moduan eragina izan du, besteen artean, hizkuntzen arteko interferentziak sortuz (Igartzabal 2014). Ildo horretatik, euskal gazte-hizkerak aztertu dituzten zenbait autorek azaleratu dute, erdararen erabilera sistematikoa dela euskal hiztun gazteen lagunarteko hizkeran (Balda 2022), euskal arnaguneetan barne (Igartzabal 2014). Batzuetan maileguak eta interferentziak bereiztea zaila bada ere (Amonarriz 2008), erdaren interferentziak maiz gertatzen direla esan daiteke. Horien artean, diskurtso antolatzaileak, interjekzioak, lexikoa, preposizioak edota erdarazko esamoldeak eta sintaxia erabiltzea ohikoa da (Igartzabal 2014).

² ‘Arnagunea’ deritzogu demografikoki euskal hiztun asko biltzen duen guneari.

Kode-alternantziak funtzio jakinak bete ditzake, besteak beste, adierazkortasuna bilatzea edo identitatea markatzea. Bera txandakatzea funtziorik gabe egiten den kasuetan, baina, hizkuntza-maila baxuaren adierazle dela esan daiteke; kasu horietan, ez da hautua, beharra baizik (Balda 2022).

Artikulu honetan euskal esamoldeak izango ditugu arretagune. *Euskaltzaindiaren Hiztegian* (2023) esapideak «zerbait berezi adierazten duen hitza edo, batez ere, hitz-multzo» gisa definitu dira, eta horrekin batera, esamoldeak eta esapideak sinonimotzat jo dira. Horien barnean, esaerak, irain eta biraoak eta bestelako multzokatzeak egiten dira (Legarra 2019). Lan honetan Amonarrizen (2015) terminologiari eutsiko diogu, eta esamoldetzat hartuko/joko ditugu esapide gisa ere izenda daitezkeen hitz edo hitz-multzo horiek.

2.2. Gazte-hizkeraren ezaugarriez

Gazte-hizkera zer den zehazteko, honelaxe dio Amonarrizek (2008):

Azken urteotako bilakaera soziolinguistikoak sakoneko eraldaketak eragin ditu haur eta gazteen tipologia soziolinguistikoen ezaugarrietan; kuantitatiboak ez ezik, baita kualitatiboak ere. Aldaketa horien ondorioz sortu diren hizkera molde berriak, beraz, gazte hizkeratzat hartuko ditugu eta, berriak diren neurrian, hizkera gaztetzat ere har ditzakegu. (Amonarriz 2008: 168)

Bestalde, euskarazko gazte-hizkerak badu ezaugarri berri bat: teknologia berrien sarrerarekin, gizartean gazte-hizkera idatzizkora ere igaro da (Balda 2022). Hori horrela, errealitate soziolinguistiko adina gazte-hizkera dago. Amonarrizen ondorio berera iritsi ziren Perez eta Zulaika ere (2016); euskal gazteen txatetan dauden adierazgarritasunaren zantzuak ikertu zituzten, eta bertan ondorioztatu zuten moduan, gazteen hizkera ez da bakarra, bat eta bera. Hortaz, gazteen hizkeraz baino, hizkerez, «aldaera funtzionalez» hitz egitea egokiago jo dute (Amonarriz 2008; Perez eta Zulaika 2016).

Ikerketek azaleratzen duten gisan, ez dago lagunarteko hizkera nazionalik (Amonarriz 2015); edozelan ere, esan daiteke egungo lagunarteko euskarak edo euskara arruntak izan badituela oinarritzko ezaugarri batzuk, hala nola

euskara nahasia, erdaren kalkoak sarri erabiltzea edota euskalkiak erabiltzea adierazkortasuna lortzeko. Azken horrekin lotuta, Amonarrizek ondorioztatu du, hiri-hizkerarik edo argotik ez dagoenez, euskalkiak direla heldulekurik garrantzitsuenak txatetan hizkera berriak sortzeko, eta ingurune erdaldunetan ere euskalkietara jotzeko grina nabari dela (sarri batera baino gehiagotara). Horrela, txatetan gazte-hizkerek euskalkietatik jaso dituzten ekarpen nagusien artean, tokian tokiko lexikoa, esamoldeak, aditzak, bus-tidurak, kontsonanteen erorketak, bokal-alternantziak, fonetismo bokali-koak edota laburragoak diren euskalkietako beste formak ageri dira. Ahozko hizkerari dagokionez, hizkera informal hori ezaugarritu du Legarrak (2019) bere lanean, eta besteak beste, honako alderdi hauek aipatu ditu: hitzak laburtzeko zein elkartzeko joera; perpaus bakunen erabilera; hitz-ordena idatzizkoan bezain zaindua ez izatea; hitanoaren erabilera (Ipar Euskal Herriko zenbait tokitan «xuketa» erabiltzen da familia-eremuan); maile-guen erabilera ohikoa; biraoak, hitz-jokoak eta bestelako esamoldeak. Gazte-hizkera horiek soziolekto bat diren heinean, aldatuz joango dira, eta ezaugarri batzuk helduaroan ere mantenduko diren arren, behin-behineko aldaerak direla esan daiteke (Balda 2022).

Nafarroako gazte euskaldunen hizkuntza-hautuak aztertuta, Kasaresek (2010) ondorioztatu zuen, belaunaldi bereko euskaldun gazteen artean erabilera-ohiturak euskaraz jartzea dela gakoa. Gazteen jatorrizko familia edozein izanik ere, gazteek familia-gunetik kanpo eratzen dituzten harreman eszentrikoak dira, Kasaresen ustez, lehentasun estrategikoa euskararen erabilera sustatzeko. Ildo beretik, Amonarrizek (in Legarra 2019) aipatu du, eskolak ere hartu beharko lukeela gazte-hizkera lantzeko ardura, eta gazte-hizkera sortzeko bi euskarri azpimarratu ditu: tradizioa eta sorkuntza.

2.3. Kode-alternantziaren arrazoiez

Gazteek beren artean hitz egiten dutenean, Ibarren (2011) esanetan, hiru aldaeraren aurka egiten dute: eskola-arauaren, estilo jasoaren eta helduen kulturaren aurka. Hizkera-moten ugalketan eta aniztasunean gehien eragiten duten faktoreak, besteak beste, norbere euskararen ezagupen-mailla, harreman-sarearen ezaugarri soziolinguistikoak, bizi den ingurunearen

errealitate soziolinguistikoa nahiz linguistikoa edota taldearen identitatea, eta ideologia linguistikoa dira (Amonarriz 2008). Ibarak (in Balda 2022) beste hainbat faktore ere aipatu ditu: atxikimendu soziala, gazteen egoera historikoa, egoera psikikoa, gazteen sexua eta etnia.

Gazteen txatak aztertuz gero, interferentziak gertatzeko arrazoiak honako hauek dira, Amonarrizen ustean: adierazkortasuna lortzeko gaitasun linguistikorik eza; «euskañola» erabiltzea euskarara heltzeko bide gisa; beste hizkerarekin bat ez egiteko bidea izatea; erreferentzia eta irudi sinboliko gehienak erdaraz egotea; eta, azkenik, euskarazko lokuzioak eta esatera zaharrak ez ezagutzea edo ongi ez interpretatzea. Horrez gain, emozioekin lotutako edozer adierazteko, gaztelaniak hartu du protagonismoa (Balda 2022). Baina, Carstenek (2008: 523) *catanyolaren* inguruan esandakoaren ildotik, ez dago hizkuntza berri baten sorreraren zantzuak direla esaterik, inondik ere; hizkuntza berri bat sortzen den kasuetan, modu sistematikoan antolatzen dira eta ez dira ustekabeko nahasketak izaten:

Son claros argumentos en contra de la idea del “nacimiento” de una lengua mezclada en Cataluña. Para Myers-Scotton (2002: 3) es obvio que quienquiera que estudie las lenguas realmente mezcladas, o sea, aquellas en que se ha creado algo totalmente nuevo, como es el caso del mencionado *michif*, reconocen que están sistemáticamente organizadas y no se trata de mezclas accidentales.

Ikerketa honetan, hizkuntzen alternantzia eta hizkuntza-aldaketa ditugu jomugan, ahozkotasunaren barnean gertatzen diren alternantzia eta aldaketa horiek dagoeneko integratuta dauden maileguetatik bereiztea zaila dela jakinik ere (Carsten 2008).

3. Metodologia eta lagina

Orotara, Euskal Herriko hamar ikastetxetan abiatu da ikerketa: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan, lurralde bakoitzeko bina ikastetxetan, eta Ipar Euskal Herrian beste bitan (*Xilaba* izendapenaren barruan sartu ditugu). Orotara, 433 ikaslek osatu dute azterketaren lagina, guztiak ere Lehen Hezkuntzako 4. mailakoak (LH 4).

ARIKALA ikerketa-ekintza hiru ikasturtetan zehar luzatuko da³ eta ikasurte bakoitzeko 3 fase ezberdin izango ditu:

- 1) esku-hartzerik gabe, hasierako egoeraren berri izateko datu-bilketa (0 puntua);
- 2) modu esperimentalean bideratuko den hezkuntzaren esku-hartzea; eta,
- 3) esku-hartzearen ostean, horrek izan duen eragina neurtzeko unea.

Horrela, lehen fase horretan, hezkuntza fenomenoak, egitateak eta egoerak deskribatzea helburu dituen diseinu deskribatzailea izan da erabilitako metodologia. Izan ere, diseinu horrek datu-bilketaren bidez, ikergaia sako-nago ezagutzeko eta hasieran egin ezin diren hipotesiak enpirikoki egiaztatze-ko aukera ematen du (Lukas eta Santiago 2016). Horretarako, batik bat datu kuantitatiboak jasotzeko, galdetegia eta behaketa sistematikoak izan dira baliatutako teknikak. Batetik, galdetegi bidez jasotako informazioa modu honexetan bildu da: ikasleei *google-forms* galdetegi bat pasatu zaie beren lehen hizkuntza nahiz hizkuntzaren erabilera-ohiturak ezagutzeko, ikasleek ikasgelan bertan irakasleen azalpenaren laguntzaz bete dutena.

Behaketa bidez jasotakoa, aldiz, ikastetxe bakoitzean lau behaketa-egun eginda eskuratu da, eta kasu guztietan jolas-orduko tartea zein bazkal garai-koa behatu dira. Behaketa egiteko, hezitzaileak aritu dira jolas-orduan LH 4ko ikasleak behatzen (hezitzaileek ikasleak ezagutzen ez zituzten kasuetan, LH 4ko haurrei zapi bat jarri zaie lepotik, bereizgarriren bat izateko. Haurrek jaso duten azalpen bakarra izan da, hezitzaileek behatu nahi zutela zein jolasetara ibiltzen ziren, eta egun batzuetan horreketan arituko zirela. Hezitzaileei dagokienez, behaketarako txantilo bat izan dute, ikerlariok aurrez prestatutakoa. Hezitzaileak LH 4ko haurren taldeak behatu dituzte, bai eta haur horiek beste haur batzuekin elkartu direnean sortu diren dinamikak ere. Ildo horretan, eta Caussek (2009) aipatu duen gisara, hizkeraren inguru-ko ikerketak hizkera bera sortzen den testuinguruan gauzatzeko beharra azpimarratu nahi genuke, komunikazio-prozesuaren ulermen sakonagoa

³ 2022-2023 ikasturtea izan da lehena. Hemen aurkeztu dena *pre-postaren* abiapuntuko unea da (0 puntua).

izateko. Horixe izan da, behaketa lagunarteko hizkera naturala gertatzen den aisia-esparruan burutzeko arrazoia.

Adierazleei dagokienez, solaskideek identifikatzen dituzten ezaugarriez gain (sexua, adina), elkarrizketa jaso den egoera (jolasa vs bestelako elkarrizketa) eta entzundako esamolde zehatzak bildu dira. Bestalde, jasotako esamoldeak kategoria-sistema erabilia banatu eta kuantifikatu dira. Esamolde horiek «aldekotasuna», «kontrakotasuna», «harridura» eta «bestelakoa» izendatu diren kategorietan banatu dira. Lehenbizi behatzaileek antolatu dituzte esamoldeak kategoria horietan, eta horren ostean, ikerlariok sailkapen horiek berrikusi ditugu. Berrikuspen horretan, ohartu gara, bateko Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek izaera ezberdineko esaerak erabiltzen dituztela, eta besteko, Igartzabali (2014) jarraituz, esamolde horien barruan taldekatze desberdinak egiteak irakurketa esanguratsuagoa eskaintzen digula. Hala, aldekotasuna, kontrakotasuna, harridura eta bestelakoak adierazteko esamoldeak diren zehazteaz gain, esamoldeon artean bereizi egin ditugu, batetik, interjekzioak eta esaerak, eta bestetik, irain eta biraoak.

Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea, haurrek ez dutela jakin behatzaileek zer behatu nahi zuten; arestixean esan bezala, haurroi eman zaien azalpen bakarra, behatzaileak jolasak behatzera joan direla esatea izan da. Lerro bateko eta bi lerroko ikastoletan behatzaile bat aritu da, eta hiru lerroko ikastoletan, berriz, bi behatzaile aritu dira; hamabi behatzaile orotara. Behatzaile horiek txantilo bategan datuak jaso, eta gero datu horiek guztiak digitalizatu egin dira, datuen arteko gurutzaketak eta alderaketak egin ahal izateko.

4. **Emaitzen azterketa**

Atal honetan, lehenik, ikasleek galdetegi bidez erantzundako datuak jasoko ditugu: beren lehen hizkuntza/hizkuntzak zein den/diren eta etxean, kalean nahiz ikastolan zein hizkuntzatan aritzen diren. Horren ostean, behatzaileek bildutako datuak emango ditugu, zehazki, ikastolako aisia-eremuan behatutako elkarrizketen emaitzak. Gogora dezagun orotara 433 ikasleek erantzun diotela galdetegiari.

4.1. Ikasleen lehen hizkuntza eta hizkuntza-erabilera: galdetegiaren emaitzak

4.1.1. Haur parte-hartzaileen profila, lehen hizkuntzaren arabera

Lagina osatzen duten ikastoletako haurren profila ezagutzeko, beren lehen hizkuntzaren inguruan galdetu zaie. Ikasle horien % 27,94k du euskara lehen hizkuntza, eta, orobat euskara eta erdara, % 36,03k. Lehen hizkuntza erdara dutenak, aldiz, ikasleen % 36,03 dira. Bestalde, erdaren barruan, gaztelaniaz eta frantsesaz gain, badaude lehen hizkuntza bestelakoak (galegoa, katalana, arabiera, errumaniera, guarania, kreolera, ukrainera eta eslovakiera) dituztenak ere. Horiek parte-hartzaileen % 1,86 dira.

Beheko taulan datuok lurraldeka banatuta ageri dira.

1. taula. Haur parte-hartzaileen lehen hizkuntza, lurraldeka ikertuta

	Nafarroa	Xilaba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EH
Euskara	% 9,30	% 23,08	% 32,06	% 60,49	% 8,82	% 27,94
Euskara eta erdara	% 39,53	% 29,23	% 29,01	% 23,46	% 63,24	% 36,03
Erdara	% 51,16	% 47,69	% 38,93	% 16,05	% 27,94	% 36,03

Iturria: ARIKALA galdetegiak. Geuk egina.

Goiko taulak iradokitzen du, lehen hizkuntza euskara dutenen parte-hartzaileen kopuru handiena gipuzkoarra dela (% 60,49) eta, baxuena, arabarra (% 8,82). Euskara eta erdara biak batera lehen hizkuntza dituztenen haur-kopuru handiena, ordea, arabarra da, eta baxuena, gipuzkoarra. Alabaina, lehen hizkuntza erdara hutsa dutenen gehiengoa nafarra da (% 51,16), eta ondoren, Xilabako haurrak (% 47,69), bizkaitarrak (% 38,93), arabarrak (% 27,94) eta, azkenik, gipuzkoarrak (% 16,05).

4.1.2. Haur parte-hartzaileen etxeko hizkuntza erabilera

Ikerketan parte hartu duten haurrek etxean hitz egiten duten hizkuntzaz galdetzean, haurren % 30,95ek erdara dela etxean erabiltzen duten hizkuntza erantzun dute. Euskara eta erdara hitz egiten dutela erantzun dutenak % 44,80 dira, eta etxean euskara erabiltzen dutenak, aldiz, % 24,25.

Etxean erabiltzen den hizkuntzaren datuak lurraldeka banatuz gero, parte-hartzaileen hizkuntza-ohituretara gehiago gerturatzeko aukera dago.

2. taula. Haur parte-hartzaileen etxeko hizkuntza-erabilera

	Nafarroa	Xilaba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EH
Euskara	% 5,81	% 18,46	% 26,72	% 50,62	% 16,18	% 24,25
Euskara eta erdara	% 53,49	% 49,23	% 31,30	% 37,04	% 66,18	% 44,80
Erdara	% 40,70	% 32,31	% 41,98	% 12,35	% 17,65	% 30,95

Iturria: ARIKALA galdetegiak. Geuk egina.

Goiko taulan ikus daiteke, etxeko hizkuntza euskara dutenen kopuru handiena gipuzkoarra dela (% 50,62) eta, baxuena, nafarra (% 5,81). Euskara eta erdara biak batera erabiltzen dutenen haur-kopuru handiena, ordea, arabarra da, eta baxuena, bizkaitarra. Bestalde, etxeko hizkuntza erdara hutsa dutenen gehiengoa bizkaitarra da (% 41,98), eta ondoren, Nafarroako haurrak (% 40,70), Xilabakoak (% 32,31), Arabakoak (%17,65) eta, azkenik, Gipuzkoakoak (% 12,35).

4.1.3. Haur parte-hartzaileen kaleko hizkuntza-erabilera

Ikerketan parte hartu duten haurrek kalean hitz egiten duten hizkuntzaz galdetzean, haurren % 48,04k erdara dela kalean erabiltzen duten hizkuntza erantzun dute. Euskara eta erdara hitz egiten dutela erantzun dutenak % 32,56 dira, eta kalean euskara erabiltzen dutenak, aldiz, % 19,40.

Kalean erabiltzen den hizkuntzaren datuak zehaztasun handiagoz ikus daitezke ondoko taulan, lurraldeka antolatuta.

3. taula. Haur parte-hartzaileen kaleko hizkuntza-erabilera

	Nafarroa	Xilaba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EH
Euskara	% 3,49	% 4,62	% 18,32	% 64,20	% 0,00	% 19,40
Euskara eta erdara	% 17,44	% 67,69	% 34,35	% 27,16	% 23,53	% 32,56
Erdara	% 79,07	% 27,69	% 47,33	% 8,64	% 76,47	% 48,04

Iturria: ARIKALA galdetegiak. Geuk egina.

Kaleko hizkuntza-erabilera aztertzerakoan, goiko taulan ikus daiteke, kalean euskara gehien erabiltzen duten ikasleak gipuzkoarrak direla (% 64,20), eta gutxien erabiltzen dutenak, berriz, arabarrak (% 0,00). Kalean euskara eta erdara baliatzen dutenen gehiengoa *Xilabakoak* (% 67,69) dira, eta gutxien Nafarroakoak (% 17,44). Erdara hutsean jarduten dutenetan, emaitza handienak Nafarroako (% 79,07) eta Arabako (% 76,47) ikasleak dira, hurrenez hurren.

4.1.4. Haur parte-hartzaileen ikastolako hizkuntza-erabilera

Lehen Hezkuntzako 4. mailako haurrek ikastolan hitz egiten duten hizkuntzaz galdetzean, haurren % 55,28k euskara dela ikastolan erabiltzen duten hizkuntza erantzun dute. Euskara eta erdara hitz egiten dutela erantzun dutenak % 39,72 dira, eta erdara erabiltzen dutenak, aldiz, % 4,85.

4. taula. Haur parte-hartzaileen ikastolako hizkuntza-erabilera

	Nafarroa	Xilaba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	EH
Euskara	% 25,58	% 56,92	% 76,34	% 81,48	% 19,12	% 55,28
Euskara eta erdara	% 63,95	% 41,54	% 18,32	% 16,05	% 73,53	% 39,72
Erdara	% 10,47	% 1,54	% 5,34	% 2,47	% 7,35	% 4,85

Iturria: ARIKALA galdetegiak. Geuk egina.

Ikastolako hizkuntza-erabilerari dagokionez, gipuzkoarrak (% 81,48) dira euskara gehien erabiltzen dutenak eta, gutxien, arabarrak (% 19,12). Bestalde, arabarrak (% 73,53) dira ikastolan hizkuntza bitan edo gehiagotan gehien aritzen direnak eta, kontrara, gipuzkoarrak (% 16,05). Erdara hutsean jarduten dutenen artean, berriz, gehien nafarrak (% 10,47) dira eta, gutxien, *Xilabakoak* (% 1,54).

4.2. Ikasleen lagunarteko elkarrizketak: behaketaren emaitzak

Behaketetan, orotara 667 elkarrizketaren datuak jaso dira. Horietatik 395 (% 59,22) euskara hutsean gertatu dira, 114 (% 17,09) euskara eta erdara nahastuta, eta 158 (% 23,69) erdaraz. Hurrengo tauletan elkarrizketa horiek zein hizkuntzatan egin diren azalduko dugu, adinaren, sexuaren eta aisia-egoeraren arabera. Kasu honetan, Euskal Herriko datuak emango ditugu, luzeegi joko bailuke lurraldez lurraldeko datuen irakurketak.

4.2.1. Elkarrizketa-hizkuntza adinaren arabera

Adinaren aldagaiari dagokionez, helburua izan da, hiztunek adinkideekin, gazteagoekin nahiz zaharragoekin, hizkuntza bera erabiltzen ote duten aztertzea.

5. taula. Haur parte-hartzaileen elkarrizketa-hizkuntza, adinaren arabera ikertuta

	Euskara	Euskara eta erdara	Erdara	Guztira	Elkarrizketen %
Adinkideekin	282	61	92	435	–
BB ⁴ orokorrak	% 64,83	% 14,02	% 21,15	% 100	% 65,2
Zaharragoekin	55	14	13	82	–
BB orokorrak	% 67,07	% 17,07	% 15,85	% 100	% 12,3
Gazteagoekin	21	7	12	40	–
BB orokorrak	% 52,5	% 17,5	% 30	% 100	% 6
Mistoa	37	32	41	110	–
BB orokorrak	% 33,64	% 29,09	% 37,27	% 100	% 16,5

Iturria: ARIKALA galdetegiak. Geuk egina.

Goiko datuei erreparatuta, jaso diren elkarrizketa gehienak (% 65,2), adinkideen artekoak izan dira. Zaharragoekin jasotakoak % 12,3 eta gazteagoekin, berriz, % 6. Azkenik, talde mistoetan gertatutako jardunek (adin desberdinak nahasita) elkarrizketen % 16,5 osatu dute. Adinkideen artean gauzatutakoetan, euskaraz % 64,83 aritu dira, euskaraz eta gaztelaniaz nahasian, % 14,02, eta erdaraz, % 15. Zaharragoekin jardun dutenenetan, euskaraz mintzatutako kopurua (% 67,07) bertsua da, eta euskaraz eta gaztelaniaz aritu direnak (% 17,07), kasu honetan, gaztelania hutsezkoak (% 15,85) baino gehiago dira. Gazteagoekin, berriz, euskara hutsez jardun dutenen kopuruak behera egin du (% 52,50), euskaraz nahiz gaztelaniaz aritu direnen kopuruari etsi egin zaio (% 17,50), eta nabarmen igo da erdaraz aritu direnen kopurua (% 30). Azkenik, talde mistoetan –alegia, gazteago nahiz zaharragoekin batera elkartu direnean–, euskaraz, bi eletan zein erdara hutsean egin dutenen kopuruek berdintzera jo dute, oraingo honetan gaztelaniazko elkarrizketak nagusitu badira ere, besteetan ez bezala.

⁴ BB: batezbestekoa.

4.2.2. Elkarrizketa-hizkuntza sexuaren arabera

Hurrengo taulan sexuaren araberako bereizketa egin dugu. Badakigu ikasleei ez zaiela beren sexuaz galdetu, eta beraz, litekeena da akats-tarteren bat izatea. Hala ere, aldagai hori kontuan hartzea erabaki dugu, hainbat azterketak erakutsi baitute adierazle horrek baduela esanguratasuna.

6. taula. Haur parte-hartzaileen elkarrizketa-hizkuntza, sexuaren arabera ikertuta

	Euskara	Euskara eta erdara	Erdara	Guztira	Elkarrizketen %
Neskak	134	19	33	186	–
<i>BB orokorrak</i>	% 72,04	% 10,22	% 17,74	% 100	% 27,89
Mutilak	145	40	80	265	–
<i>BB orokorrak</i>	% 54,72	% 15,09	% 30,19	% 100	% 39,73
Mistoak	116	55	45	216	–
<i>BB orokorrak</i>	% 53,70	% 25,46	% 20,83	% 100	% 32,38

Iturria: ARIKALA galdetegiak. Geuk egina.

Jaso diren elkarrizketetatik, nesken artekoak % 27,89 dira, mutilen artekoak % 39,73, eta talde mistoetan gertatutakoak, berriz, % 32,38. Sexuaren arabera eginiko azterketak iradokitzen du, adierazle horrek baduela esanguratsunik. Izan ere, nesken % 72,04k egiten dute euskaraz beren artean, eta hizkuntzak nahasita edo erdaraz egiten dutenen kopurua % 10,22 da (horietan, gehiago dira hizkuntza nahasian dihardutenak, erdara hutsean dihardutenak baino). Mutilen kasuan, berriz, euskaraz dihardutenen kopurua ez da % 55era ere iritsi (orotara % 54,72), eta mutilen ia herena (% 30,19) erdara hutsez aritu da behaketek iraun duten artean; hizkuntzak nahasian erabili dituztenen kopurua % 15,09koa da. Taldeak mistoak diren kasuetan, euskaraz dihardutenen datuak (% 53,70) mutilen arteko hizketaldien datuekin parekatu dira, bien artean oso alde txikia dela, baina horretan, hizkuntzak nahasian darabiltzatenen kopurua handiagoa da (% 25,46), erdara darabiltzenena baino (% 20,83).

4.2.3. Elkarrizketa-hizkuntza aisia-egoeraren arabera

Azkenik, jasotako elkarrizketa-hizkuntza aisia-egoeraren arabera aztertu da; hain zuzen ere, jakiteko zein hizkuntzatan aritu diren ikasleak jolasean jardun dutenean, eta zein hizkuntzatan, bestelako egoeretan.

7. taula. Haur parte-hartzaileen elkarrizketa-hizkuntza, aisia-egoeraren arabera ikertuta

	Euskara	Euskara eta erdara	Erdara	Guztira	Elkarrizketen %
Jolasean	258	83	87	428	–
<i>BB orokorrak</i>	% 60,28	% 19,39	% 20,33	% 100	% 64,16
Bestelako elkarrizketetan	137	31	71	239	–
<i>BB orokorrak</i>	% 57,32	% 12,97	% 29,71	% 100	% 35,83

Iturria: ARIKALA galdetegiak. Geuk egina.

Jasotako elkarrizketetan, jolasean egindakoak elkarrizketen % 64,16 dira, eta bestelako elkarrizketek % 35,83 osatu dute. Euskaraz aritu direnen kopurua berdintsua da jolasean nahiz bestelako egoeretan (% 60,28 eta % 57,32, hurrenez hurren) gauzatutakoak. Ele bitan edo erdaraz aritu direnen kasuan, esan daiteke, jolas-egoeretan erakutsi dutela haurrek hizkuntzak nahasteko joera handiagoa (% 19,39, jolasean eta % 12,97, bestelako egoeretan). Erdarazko elkarrizketak, ostera, jolasean baino gehiago dira bestelako egoeretan (% 20,33 eta % 29,71, hurrenez hurren) egindakoak.

4.2.4. Ikasleek aisia-esparruan erabilitako esamoldeak

Jasotako elkarrizketetan azaleratu diren esamoldeei erreparatuko diegu orain. Horretarako, batetik, komunikazio-helburua zutabe hartuz sailkatu ditugu esamoldeak, aldekotasuna, kontrakotasuna eta harridura erakustean ikasleek zein hizkuntza erabiltzen duten aztertzeko. Hala, elkarrizketaren

testuingurua hartu da abiapuntu; alegia, komunikazio-egoera horretan haurrak adierazi nahi izan duena.

Horren ostean, esamolde horiek izaeraren arabera xehetu ditugu; hain zuzen ere, interjekzioak, esaerak eta irain eta biraoak adieraztean erabiltzen duten hizkuntza.

8. taula. Haur parte-hartzaileek erabilitako esamoldeak aisia-esparruan

	Euskara	Erdara	Guztira	Elkarrizketen %
Aldekotasuna	101	162	263	
<i>BB orokorrak</i>	% 38,40	% 61,60	% 100	% 27,48
Kontrakotasuna	164	223	387	
<i>BB orokorrak</i>	% 42,38	% 57,72	% 100	% 40,44
Harridura	67	128	195	
<i>BB orokorrak</i>	% 34,36	% 65,64	% 100	% 20,38
Bestelakoak	32	80	112	
<i>BB orokorrak</i>	% 28,57	% 71,53	% 100	% 11,70
Orotara	364	593	957	–

Iturria: ARIKALA galdetegiak. Geuk egina.

Euskal Herriko datuei begiratuz gero, jasotako esamoldeen % 27,48 aldekotasuna adierazten duten adierazpenei dagozkiela konturatuko gara; % 40,44, kontrakotasuna adierazten dutenei; % 20,38, harridura adierazten dutenei, eta azkenik, % 11,70, bestelakoei. Hizkuntzari dagokionez, euskaraz aldekotasuna, kontrakotasuna edo harridurazko adierazpenek, jasotako esamolde guztien % 34,36tik % 42,38ra bitartekoa bete dute; erdarazkoek, berriz, % 57,72tik % 65,64ra bitartekoa.

Laburbilduz esanda, multzo guztietan erdarazko esamoldeak nagusi dira, oro har, 10 esamoldetik 6 baitira gaztelaniaz nahiz frantsesez jasotakoak.

9. taula. Ahozko jardunearan erabili diren esamoldeak

Ahozko jardunaren adierazleak	Euskaraz	Erdaraz	Euskaraz eta erdaraz
Esamoldeak	zer da hori?, alai, bengal, itxoin?, ixo!, hori bai!, onal, ez da posible, azkenean!, ze ari da?, alaa, ze pottolo!, ze onal, orain bai, agur!, baino... zer gertatzen da?, jarraitu, jarraitu!, zitala! (ona), bai, zea, serijo?, bua, txabai, gamea!, brutalak!, super ondo!, ze inporta zaizu!?, zer ari zara?, ze nazka!, bengal, ze polita!, ezta (e)re!, bai zea, hoi librada!, hoi klaro do!, ze aiza, mesedez!, barkatu!, zuen ametsetan, ze esatezu!, gamea!, beaien txakurretan!, maltzurral, ze penal, esan naizuenak!, etzait inportat, hoi da!, tooope!, bengal ba!, guapo-guapo do!, errexa!, bota gibel, trixa da, airean pasa (fite, atkar)!, tanpi zuretza!, kasu!, aski!, zertan zabilta?, super gozo!, onaaa!, txarra! (askotan), earrak!, hoi jefu!, ez egin negar!, etzait inportat, perfektu!	ivaya mierda!, es que..., si ya..., a ver..., pero bueno, pues, hombre es que..., o sea..., a ver que...!vengal, itó!, icállate la boca!, lo mejor, no me la que..., ¡oye!, ¡al loro!, ¡dale!, ¡olé!, ¡ya vale!, ¡qué buena!, ¡qué guay!, mais noi, atrandez!, ¡qué pesau!, mais alléz!, ¡ino te jode!?, ¡jode(r) tío!, ¡qué bonito!, ¡vamos!, qu'est-ce que tu fais?, quel chance, salut!?, ale!, ¡pá tu casa!, ¡brutal!, ¡ya te digo!, ¡que pasadal!, ¡qué guapo (zerbait gustakoa)!, pues me parece muy bien, ¡toma yai, ¡cómo sois!, ¡a ver?, ¡qué fuerte!, ¡para nada!, ¡toma!, ¡por dios!, la vida es dura, ¡sí señori, ¡qué suerte!, ¡qué pereza!, ¡qué chollo!, ¡bua, chaval!, ¡por fin!, muy limpio, me maté, mi bebé, ¡qué haces!, ¡bro, pos yastai, ¡genial!, ¡para nada!, ¡que la suerte te acompañe!, somos los mejores, ¡sí, claro!, c'est bon!, voilà, comment ça ce fait?, c'est pour ça?, ¡chócala tío!, ¡pero qué haces!, ¡pero qué dices?, ¡qué máquina!, ¡qué haces?, ¡venga que tú puedes!, ¡buenísimo!, ¡que no, tío!, ¡que noi!, ¡pero qué dices!, ¡¡qué haces!?, ¡toma!, ¡quita!, ¡dale ya!, ¡pero qué haces?, ¡en serio?, ¡qué calor! (ongi egina), ¡qué locura!, ¡ahora sí!, ¡no doy ni una!, ¡qué te importa?, ¡modo pro!, ¡filipa!, ¡sí yai, ah ouit, ¿e pas possible!, alléz, alléz!, ¡mirame a la cara!, ¡déjale en paz!, ¡hace más frío que en el Polo Norte!, ¡poquito a poquito, haberlo dicho antes, ¡a qué jugáis?, ¡qué buena!, ¡arre, caballito!, ¡cállate!, ¡qué más da?, ¡es que no te enteras!, ¡qué hablas!, es púla (taldean artean aldea dagoela adierazteko), aller! ¡qué asco!, ¡qué mierda!, ¡qué esa mierda!, ¡no la cagues!, ¡cómete esa!, ¡mierda puta!, ¡que te calles!, ¡coño!, oh shit!, ¡te fastidias, ¡tú quien te crees?, ¡estás loco!, ¡tú al buche!, ¡dale una hostia!, ¡hay gente que no hace una mierda!, ¡vaya puta mierda otra vez!, ¡te jodes!, ¡joder, qué mierda! ¡os jodéis!, ¡esto es una mierda!	ixxo tío!, ez tío!, pues bai!, oso guarrada handial, ez tío!, pues izorratu!, mekauru tío!, ze rabiat!, gu gara buenísimos!, da super guay!, a que orain bai!?

Iturria: ARIKALA behaketa. Geuk egina.

Baina, zer-nolako esamoldeak erabiltzen dituzte Euskal Herriko LH 4ko haurrek? Goiko datuek iradokitzen dute, haurrek gehien erabiltzen dituzten esamoldeak, hurrenez hurren, kontrakotasuna, aldekotasuna, harridura eta bestelakoak adieraztekoak direla. Horien izaerari dagokionez, interesgarria iruditu zaigu jaso ditugun esamolde horiek sailkatzea, adin horretan erabiltzen diren moldeek zein ezaugarri dituzten identifikatzeko. Beheko taulak ez du izaera kuantitatiborik, errepikatuta agertu direnak behin bakarrik bildu dira.

Goiko taulan orotara 209 esamolde ezberdin bildu dira. Datu horiek hainbat ondorio iradokitzen dituzte. Batetik, erdarazko esaeretan aberastasun handiagoa nabari da haurren artean. Orotara 137 (% 65,55) esamolde ezberdin jaso dira erdaraz (arestian aipatu bezala, errepikatuak ez dira zenbatu); euskaraz 61 (% 29,19) esamolde bildu dira, eta 11 (% 5,26) hizkuntzen nahasketan emandakoei dagozkie. Bestetik, haurren % 63,97k euskara edo euskara eta erdara dutela etxeko hizkuntza kontuan hartuta, esan daiteke, erabiltzen dituzten esaeretan erdararako joera nabarmena dela.

Ondorengo multzo hau, aldiz, irain eta biraoena dugu.

Irain eta biraoen kasuan, agerikoa da hizkuntzen arteko aldea. Orotara 73 irain eta birao desberdin jaso dira, eta horietatik 16 (% 21,92) euskarazkoei dagozkie; erdarazkoei, berriz, 57 (% 78,08). Aipatzekoa da, zenbatu ez badira ere, gaztelaniaz, asko eta asko errepikatu direla; adibidez, *ostia*, *joder*, *puta mierda*, *gilipollas*, *hijo puta*, *te jodes*, eta horien antzekoak. Hortaz, baieztatu daiteke irain eta biraoen arloan dagoela hizkuntzen arteko desorekarik handiena. Horren irakurketak askotarikoak izan daitezke, baina ondorio bat, behintzat, garbia da: euskaraz irain eta birao gutxi ezagutu edo erabili arren, ohikoak dira adin horretako haurren elkarrizketetan, eta eurok baliatzen dituztenean, gaztelaniara edo frantsesera jotzen dute.

10. taula. Ahozko jardunean erabili diren irain eta biraoak

Ahozko jardunaren adierazleak	Euskaraz	Erdaraz	Euskaraz eta erdaraz
Irain eta biraoak	ostial, ostrá, txapuza, ez ostial, <i>porkulo hartzea</i> , tontua <i>zal</i> , <i>mekauen</i> , jopel, zera tontoa, ze txoruak!, kendu kontxo!, ze <i>pikona!</i> , ze <i>kopiona!</i> , nire amona tangetan!, nire amona pelotari!	ihostia!, ijolín!, ijoder!, es connard!, iqué miras, bobo?, ien tu carai, iqué pesada!, itonta!, i me cago en la puta!, iostras!, itú! iflipas!, iputa!, iqué falso!, iladrona!, ila mierda!, ino me jodas!, ta tomar por culo!, iputo amo!, <i>tempanau!</i> , iel puto amo!, iputa mierda!, ini puta idea!, iputo tonto!, ino te joda!, ini de coña!, t'es null!, <i>iflipat!</i> , icállate!, ijode(r) qué mierda!, iqué <i>pringi!</i> , ipelota!, i local, igilipollas!, i subnormal!, iputo cacharro!, oh putain!, iqué buena, chavall!, isu puta madre!, ihijo puta!, <i>itontolculo!</i> , ta mere!, ibicho raro!, ite jodes!, iqué <i>pringao!</i> , ime da asco!, ime da vergüenza!, isois los peores!, iestá loco éste!, iserá hijo de puta!, iqué malo eres!, ieres tonto, tío", ies que son todos!, ihostia, qué malo!, ieres malísimo!, isois unas cagadas!, ieres un picón!, aller babouin!	

Iturria: ARIKALA behaketa. Geuk egina.

5. Ondorioak eta eztabaida

Atal honetan teoriaren eta emaitzen arteko gurutzaketa aurkeztuko dugu; hain zuzen ere, autoreek egindako ikerketekin erkatuko dugu gurea, aztertutako laginaren ezaugarri behinenak azpimarratzeko.

Aztertutako laginari dagokionez, 433 haur behatu dira orotara. Horien % 64k dute lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara. Aldiz, kalean euskara, edo euskaraz eta gaztelaniaz, % 51,96k egiten dute. Ikastolan, berriz, euskara hutsez aritu dira % 55,28, eta euskaraz eta gaztelaniaz, % 39,72 (orotara % 95). Horrek esan nahi du ikastolak nolabaiteko babesgunea eskaintzen diola euskarari.

Datu hori berresten dute, neurri batean, ikastolako aisia-esparruan jasotako elkarrizketek ere. Izan ere, zenbatutako 667 elkarrizketen % 59,22 euskara hutsean egindakoak dira. Hala ere, kasu horretan erdaraz egin dira elkarrizketen % 23,68. Horrek pentsaraz liezaguke ikastolan euskaraz eta erdaraz aritzen diren horiek, aisia-esparruan erdararako joera handiagoa erakusten dutela.

Datu horiek adinarekin, sexuarekin eta aisia-egoerarekin alderatu dira, eta ondorengo lerro hauetan jaso dira aldagaietako bakoitzak emandako daturik esanguratsuenak:

- a) Adinaren araberako gurutzaketari dagokionez, bildu diren elkarrizketen daturik esanguratsuenak hauxe izan daiteke: adin desberdinetako haurrak elkartu diren kasuetan jaitsi egin da euskararen erabilera nabarmen. Edozelan ere, elkarrizketen erdiak baino gehiago adinkideekin egindakoak izan dira, beraz, ikerketaren aurreragoko datuen zain geratuko gara aldagai horren garrantziaz ondorioak ateratzeko.
- b) Sexuari dagokionez, Ibarrek (in Balda 2022: 9) hizkuntza-hautuetan sexua eragina izan dezakeen aldagaien artean aipatu du. Gure datuek ere hori baieztatzen zantzuak eman dituzte. Izan ere, aldea dago nesken arteko eta mutilen arteko elkarrizketetan. Hala bada, nesken arteko elkarrizketetan % 72,04 dira euskara hutsez egindakoak, baina taldeok mutilek osatuak edo mistoak direnean, elkarrizketen % 53,70-54,72 baino ez dira euskara hutsez egindakoak. Ondorioz,

aurreko aldagaiarekin gertatu den bezala, aldagai honi ere erreparatu egin beharko zaio ondoko datu-jasoketetan.

- c) Azkenik, aisia-egoeraren arabera bereizketa egin da, haurrak jolasean ala bestelako elkarrizketetan egoteak hizkuntza-hautuan eragirik ote duen ikusteko. Kasu honetan, datuak berdintsuak dira haurrok egoera batean zein bestean egon; elkarrizketen % 57,32-60,28 dira euskara hutsean egindakoak, % 12,97-19,39 bi hizkuntzak nahasian erabiliz gauzatutakoak, eta % 20,33-29,71 erdara hutsean izandakoak. Datuon arabera, ez du ematen aldagai honek zuzeneko eraginik duenik gazteen hizkuntza-hautuan.

Bestalde, artikulua hasieran gazteen hizkerari buruz egindako hainbat ikerketaren berri eman dugu. Besteen artean, batzuetan maileguak eta interferentziak bereiztea zaila dela (Amonarriz 2008) aipatu dugu, baina erdaren interferentziak maiz gertatzen direla esan daiteke. Horregatik bada, diskurtso antolatzaileak, interjekzioak, lexikoa, preposizioak edota erdarazko esamoldeak eta sintaxia erabiltzea ohikoa da (Igartzabal 2014). Ikerlan honetan esamoldeetan jarri dugu arreta, dela esamoldeen hizkuntzan, dela esamoldeen izaeran eta aberastasunean. Horietako batzuk ahozko hizkeran arruntak izan daitezke bestelako adin-tarteetan ere (adibidez: *ze esatezu?!, gañea!, earra!*), eta beste batzuk, berriz, gazte-hizkeratik gertuago daude (adibidez: *ze pikona!, ze kopiona!, nire amona tangetan!*).

Esamoldeen barruan, esaera, birao eta irainak nagusitu dira bi hizkuntzetan. Horiei dagokienez, azpimarratzeko modukoa dela uste dugu, ez dela nabarmendu euskalkien baitan soilik erabiltzen den formularik. Alegia, nahiz eta euskalkian adierazi, ez dira berez euskalkiari lotutako formulak. Ildo horretatik, ez dago, bada, esaterik, lagunarteko euskara baturik ez dagoela, eta ondorioz, euskalkirik ez duten ikasleengan ere lagunarteko euskara batu informala indartu eta zabaldu liteke.

Artikulua hasieran aipatu dugun moduan, hiru aldagaik erakusten dute euskararen erabilerarekiko korrelaziorik handiena (Aizpurua 2018): erabilera-eremuan zenbatek dakiten euskaraz (etxean, lagunartean nahiz lankideen artean), gune soziolinguistikoak eta erraztasunak. Era berean, erraztasunaren eta lehen hizkuntzaren arteko korrelazioa oso handia da. LH

4ko haurren kasuan, % 63,37 dira euskara eta euskara eta erdara lehen hizkuntza dutenak. Behaketaren datuen arabera, jasotako elkarrizketen % 59,22 euskaraz izan dira. Elkarrizketa guztietan, hala ere, euskarazko esamoldeen ehunekoek nabarmen egiten dute behera, % 38,03ra, hain zuzen ere. Horrek iradokitzen du, euskal gazte-hizkerak azertu dituzten zenbait autoreren datuak (Amonarriz 2008; Perez eta Zulaika 2016; Legarra 2019; Balda 2022) berretsi egin direla ikerketa honetan; baita euskal arnasmunee-tatikateratako datuak ere (Igartzabal 2014). Izan ere, ikasleek euskarazko elkarrizketetan ere erdarazko hainbat esamolde txertatzen dituzte.

Datuen mugei buruz, aitortu behar dugu oraindik ere ez dakigula erdaren interferentzien atzean zein arrazoi ezkututzen diren. Ondorioz, ezin dugu esan txandakatzea funtziorik gabe egiten den (eta kasu horretan, hizkuntza-maila baxuaren adierazle izan liteke), edo diskurtsoari indarra emateko nahiz eskolako hizkera arruntetik aldentzeko ahaleginari dagokion txandakatze hori. Beraz, ikerketak aurrera egin ahala, ikusi egin beharko da, lagunarteko hizkera landu ostean ikasleek beren diskurtsoak aldatzen dituzten edo interferentziori eusten dieten.

Bukatzeko esan beharra dago, badakigula gazteen hizkera-komunitatean beste hainbat faktorek ere eragiten dutela (Ibarra 2011, in Balda 2022): atxikimendu sozialak, gazteen egoera historikoak, egoera psikikoak, gazteen sexuak eta etniak. Esaterako, goiko datuetan sexuaren aldagaia arretaz jarraitzeko aldagaia dela azaleratu da. Gainontzeko alderdiak, ordea, ikerketatik kanpo geratu dira, horiek ere datu interesgarriak eman ditzaketela jakin arren.

Erreferentzia bibliografikoak

AIZPURUA, Jon (2018). «Euskararen erabilera eta erabileran eragiten duten faktore nagusiak», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 106, 1: 29-45.

AMONARRIZ, Kike (2008). «Gazte hizkerak - hizkera gazteak», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 68, 3: 167-183.

——— (2015). «Ahozketasuna soziolinguistikaren behatokitik», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 96, 3: 103-127.

ARAKAMA, Jose Mari; ARRIETA, Aintzane; LOZANO Joseba; ROBLES, Josemari, eta URRUTIA, Rosa Mari (2009). *IVAPeko Estilo Liburua*. Zarautz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea.

BALDA, Oier (2022). *Gazteen hizkeraren ezaugarriak: euskaraz «gaizki» hitz egiten ikasten*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa. https://academica-e.unavarra.es/xmlui/bitstream/handle/2454/43436/balda.117741-euskara_MUPES_2122.pdf?sequence=1&isAllowed=y. [Master Amaierako Lana].

CAL VARELA, Mario (1996). «Hacia una concepción prototípica de comunidad de habla: Gibraltar», *Atlantis: Revista de la Asociación Española de Estudios Anglo-Norteamericanos*, vol. 18, 1-2: 37-52.

CARSTEN, Sinner (2008). «Castellano y catalán en contacto: oralidad y contextos informales», *Oihenart* 23: 521-543.

CAUSSE, Mercedes (2009). «El concepto de comunidad desde el punto de vista socio-histórico-cultural y lingüístico», *Ciencia en su PC* 3: 12-21.

EUSKALTZAINDIA (2018). *Euskara Batuaeren Eskuliburua*. Bilbo: Euskaltzaindia.

GONZÁLEZ, Juan (2008). «Metodología para el estudio de las actitudes lingüísticas», *Actas del XXXVII Simposio Internacional de la Sociedad Española de Lingüística (SEL)*. Iruñea: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Navarra: 237-246.

IBARRA, Orreaga (2011). *Nxcafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

IGARZABAL, Iñigo (2014). «Kode-alternantzia eta hizkuntza ohiturak Gabiriako bi belaunalditan», *BAT Soziolinguística Aldizkaria* 92-93: 229-251.

IURREBASO, Iñaki (2019). «Hego Euskal Herriko arnaguneak zenbatzen. Arnaguneen operatibizazioaren inguruko ekarpena», *BAT Soziolinguística Aldizkaria* 110, 1: 115-126.

——— (2021). «Euskarazko hizkuntza-gaitasuna eta erabilera: zer dago indartsuen?, zer ahulen?», *HERMES: Pentsamendu eta Historia Aldizkaria* 69: 24-39.

KASARES, Paula (2010). «20 urteko nafar euskaldun hori: Nafarroako euskararen egoera zenbait gazte euskaldunen bizipenetan», *BAT Soziolinguística Aldizkaria* 76, 3: 101-123.

LEGARRA, Endika (2019). *Lagunekin euskaraz: gazteen lagunarteko hizkera lantzeko proposamen didaktikoa*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa. <https://academica-e.unavarra.es/xmlui/handle/2454/33669>. [Master Amaierako Lana].

LUKAS, Jose F., SANTIAGO, Karlos (2016). *Hezkuntza-ebaluazioa*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

MARTIARENA, Ana María (2007). «Los estudios de lenguaje y género: comunidad de habla y comunidad de práctica», *III Coloquio argentino de la IADA (International Association for Dialogue Analysis)*. La Plata: Universidad Nacional de La Plata: 418-427.

MORENO, Francisco (2005). *De sociolingüística y sociología del lenguaje*. Bartzelona: Ariel Letras.

PARODI, Claudia, SANTA ANA, Otto (1997). «Tipología de comunidades de habla: del español rural al estándar», *Nueva Revista de Filología Hispánica* 45, 2: 305-320.

PEREZ GAZTELU, Elixabete (2016). «Adierazkortasun zantzuak euskal gazteen txatetan», *Gogoia* 14: 105-130.

RAMÍREZ, Xalba (2017). «Euskararen erabilera: 12 grafiko kezkarri», *Argia* (2017ko uztailaren 13an). <https://www.argia.eus/albiste/euskararen-erabilera-12-grafiko-kezkarri>

VÁSQUEZ HERRERA, René Alejandro (2014). «Girardot como comunidad de habla», *Cuadernos de Lingüística Hispánica* 25: 57-78.

ZALBIDE, Mikel (2020). «Euskara batua eta eguneroko mintzamolde arruntak: zer dira eta zertarako? Biak nola uztartu?», *Euskaltzaindia* 81: 11-90.